

egunekoa

Xabier Amuriza

(Bertsolaria)

Balza jaunari errespetuz
(eta beldurrez)

Errazenetik hasiko naiz, Balza jaunari eskertuz, alegia, ideia-rik ere ez neukan zerbait argitu didalako, hau da, irailaren 14ko manifestazioa debekatu omen zuen Garzonen autoan nik zer toki neukan, sailburuak sendotasun demokratikoki brutalez betearazi zuen agindua, bestalde. Dirudienez, «Euskal Herritarron promotoreetarik bat» izatea, hau da, beste berrogeita hamar mila sinadurekin batera, gero 240.000 boto aterako zituen alderdi elektoral bat osatzeko betekizunean, legearekin kolaboratu izana, Garzon epailearentzat, inhabilitazio zibilerako edo adierazpen edo manifestazio askatasuna bezalako eskubide indibidual hain oinarrizko baten murrizketarako motiboa da. Ez diot Balza jaunari eskatzen epaile espainol baten interpretazio legalki gehiegizko baten aurrean defenda nazan, baina, gutxienez, eskertuko nuke, poztu izan balitz, bere erkidegoko bertako Auzitegi Nagusiak, kasu honetan, milaka eta milaka euskaldunen eskubidea babestu duelako, zeintzuen artean, ni ez naizen hondar ale bat besterik hondartza komunean. Hori egin beharrean, aurpegikera ia suminberaz agertu zen, EAEko Auzitegi Nagusiaren ebazpenari men egin beharragatik, ELA sindikatua bera ere, bere Ertzaintzan majoritarioa, intsumisioz akusaturik (hori ni neuretzat gorespina litzateke baina), debekua azkenean Auzitegi Nagusiak ebatzi duen ildoan salatzeagatik. Aitortu beharra daukat Balza jaunak lortu zuela ni beldurtzea, ez baita inolako gozokia barne sail baten ahotan edo epaile puztu baten begitan seinalaturik aurkitzea. Baina, batez ere, bere tonuak eta arrazoibideak kezkatu gin-

tuen, zeren bazirudien Garzon epailearen edo norbait goragokoaren interbentzioa eskatzen ari zela. Ez ahal da azken orduan honelakorik gertatuko. Gainera, berriro errepikatu beharra dago, irailaren 14ko manifestazioari buruz, Garzonen autoan ez zetorrela debeku agindu espresorik, azken erabakia Barne Sailaren erantzukizunpean uzten zuela baizik.

Azken orduan, zerbait iluna gertatu bide zen, zeren, bestela, Balza jauna, manifestazio bat debekatzeko modua ez da hura osatzen eta ibilbiderik erdia korritzen uztea, gero bide erdian abortatzeko, milaka manifestari jipoituz eta ikara sortuz, batez ere, haurrekin zihoazenen artean. Hauetariko batek, amak zergatik eszenatokitik kanpora arrastatzen zuen ulertu ezinik, kemen xaloa izan zuen, hots egiteko: «Ama! Zu lasai! Neuk zainduko zaitut». Euskal Herritarron milaka promotoreetarik bat izatetik aparte, urteak dira, inolako kargu politikorik ez daukadala. Orain besterik ez nuke behar, noizbait apaiz izan nintzelako, *inmoralez* eskomulga nazan Espainiar Apezpikuen Konferentziak, urte ez hain urrun eta are gutxiago ahaztuetara itzularazi gaituenak. Orduan komunitate guztiak seminarioko kape-ra nagusian batzen gintuzten, justiziako ministro frankista Iturmendi jaunaren bisita edificantea hartzeko, non berak Ama Birjinaren lorien gainean ferborez predikatzen zigun, eta Pablo Gorpide Beope apezpikuak Espainia-

ren handitasunaz eta nazionalismo separatistaren zitalkeriaz arengatzen gintuen, oraingo euskal apezpiku batzuek eta hor zehar eskoltarekin dabilen apaizen batek oso ondo gogoratuko dutenez. Madril, zer humanoaren epaileak eta zer dibi-noaren ministroak marko politikoak definitzeko eskumenean aliatu direnean, politikariek ez daukate kobratzea eta bidaia egitea besterik, oso era bigunean esanda.

Balza jaunari eskatuko nioke, Auzitegi Gorenaren ebazpena atseginez mendu ez ezik, gure gaurko manifestazioa zain dezala (ahal bada, bat ere ertzainik ez bidaliz), "contra el nacionalismo obligatorio" bezalako lelo agresibodun beste manifestazio hartan erakutsi zuen gogo berarekin. Agresiboa, Euskal Herriko populaziorik gehienarenganako intentzioagatik, noski, zeren, bestela, lelo perfektua neritzoke. Nahi nuke, bai, behingoz, nahitaez espainolak ez izateko askatasuna gozatuko bagenu. Nire aldetik, neure protagonismoa pozik utziko nioke Balza jaunari edo bere lehendakariari berari, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen defentsan. Badirudi ez dela probablea hori gaur gertatzea, baina itxaroten dut, eta Euskal Herriko gehiengoak itxaroten dugu, oso etorkizun hurbilean, besoz-beso aurkituko garela, ez aldarrikapen soilean bakarrik, baizik autodeterminazioaren beraren konkistan, Europa-ko naziorik zaharren honentzat.

AUTODETERMINAZIOA

Protagonismoa pozik
utziko nioke Balza jaunari
edo lehendakariari berari,
autodeterminazio
eskubidearen defentsan

zutabea

Maritxu Lopepe

Diruaren pereka

Jitez aldatu direnak joan ditela jin lekutik» dio baxenabartar kantu batek. Artean, OGMak kantua baino azkarragoak dira. Sustatzaile ofizialik gabe ari dira hedatzen eta inposatzen. Azken garaipenetarik dute Jose Boveren kondena, hazi entsegu batzuen suntsitzeagatik.

Larzakeko sindikalista ez bada beti publikoarenenganik berdin preziatua ere, ezin uka bere presondegiratzeak komentario ugari sortzen dituela. Jutziziaren aldekoak direla diote frantses gobernamenduko ministroek, bere ikusmoldea galdegiten zaielarik. Bi abiadurako justizia dugu berriz ere. Interes publikoari lotu ekintza sindikalak zigorra biltzen du. Denboran berean, hautetsien jokamoldeek, herritarren izorratzeko eta diru ebasteke, ez dutelarik deus ihardokitzerik sortzen ber justiziarenganik.

«Diruaren pereka doa denen gainetik», dio ber kantuak. Jitez aldatu organismoen balioa ez da frogatua baina inposaketa aitzina doa. Nonahi OGMen kalteak agertzen dira. Antibiotikoen kontrako erresistentziak eragiten ahal dituzte, alerjia batzuk sortzen ahal eta kanpoko entseguak direla-eta, alor batetik bestera pasatzen dira problema izpirik gabe. Hala nola, Kanadako laborari bat kondenatua izan da jitez aldatu organismoen herexa atzemana izan delakotz bere alorrean, berak ez zuelarik sekula mota horretako hazirik erein. Laborariari kondena jarrazazi diote multinazional etako arduradunek, berek ziotelarik laborariari kaltea sortu.

Ipar Euskal Herrian, erresistentzia frontea antolatu da ELBk sustaturik. Berrogeita hamar herriko etxek OGMen kontrako deliberoak hartu dituzte: ez dute horrelako kulturarik nahi beren lurretan. Estatuak laster erantzun die: «Ez duzue Boteririk horrelako erabakien hartzeko!». Beren herritarrak lanjerrean ezartzen ahal dituen gaitzaren kontra neurriak hartzea debekatzen zaie auzapezei.

Tinko aitzina segitzea erabaki dute gehienek. Biharko gizarteak eskertzen ahalko ditu. Oroitzen ahalko da ere Administrazioaren mehatxuak aski izan zirela beste batzuk gibel egin zezaten. Isun ttipi baten beldurrarekin edo beren aulkiaren galtzeko ustezko arriskuarekin, jokoan zer den zinez ahanzi dute. Min handiena da hauetan bazirela kalitatearen publizitateari esker bizi direnak, bai eta ere abertzaleak, hots herriaren zainzaileak omen direnak.

seiko urrea

Mattin Irigoien



Herria village denean

Flash bat: Horra apez bat (berdin du zein), agurtzen zaitu: «zeintakoa xitut?»

Flash bi: Etxea da gure nortasunaren kanton harria. Jendartea bere inguruan moldatzen da. Laubururen ikerketen hedadurak topiko andana bat ezarri digu buruan eta sinetsi nahi genuke ondare ditugula, beraz gure nor-aren bereizgarri globalizazio garaietan. ELBk ere gaitzat hartu du bere 20 urtekari, *atzo hola, gaur hala, bihar nola?* rimeikatuz.

Flash hiru: Amikuzekoa etxetiar laborantza izan da, lurjabe handien menpe. Kausitzearen eredia ekonomikoa da: etxeaz jabetzea. Nortasuna, aberatsen itxuraz jabetzetik pasatzen da, iraganeko ahalgea oroitarazten duen kultur ondarea egin ahala fite zikintegira bota nahi den trapua delarik, birziklatu gabe. Beste ibarretan Biltzarretako jaunen umeak, etxe beraz sozial ezagutza jabe, kasik zaldunak dira. Errepublikaren manera berriak ukatzen die ezagutza (dibino) hori.

Elizak abilki baliatzen du desoreka. ELB, abertzale mugimendua, ... hortik hazten da 68ak ezkerrekoturik. Ondarea, hizkuntza, lege zaharra aldarrikatzen da, ontsa birziklatu eta modernoturik, axalean bederen.

Flash lau: Etxegabeak, hemutsak eta buhameak irabazle dira sistema berrian. Konstituzioak denak igual egiten gaituenaz, azkenean funtzionario sartzen ahal dira, eta kontseiluko ere beharrez. Hauentzat euskaldun den orok ardi urri-na du (eta antzu da).

Flash ball: Ez da etxea gure jendartearen giltza. Herria baizik. Jendeak herri mailako ezagutza du ametsa, etxearen jabetza horretara heltzeko tresna da.

Flash back: Nola denek (kasik) etxea

egina duten, herria dute birsortu nahi, onarmen sehaska bero eta mitikoarengatik. Maleruski herri ttipiek ez dute gehiago lehengo baliorik, hilak dira jendartearen antolaketa zentral izatearen aldetik. Konpentsatzeko, abertzale mugimendua bada: denek elgar ezagutzen, eleka jakinki, jendarteko aitzindaritzan, familiaren babespean. Filtro horrekin irakurtzen ahal dira ikastolak, irratia, Arrosako festibala, departamenduaren aldarrikapena... herri telebista orain. Gure burua, auzoa, villageko plaza berrian, telebistan ikusiko dugu. Kantu-flash:

- «*Oh la la, voilà du bon fromage*
- «*Il est du pays de celui qui l'a fait*
- «*Celui qui l'a fait, il est de mon village!*